



BERANGOKO UDALA
BIZKAIA

**M^a ISABEL LANDA GAUBEKA
AND.AK, BERANGOKO (BIZKAIA)
UDALEKO ALKATE-PRESIDENTEAK,
HONAKO HAU**

JAKINAZTEN DU:

COVID-19ren hedapenaren ondorioz, Lehendakariak, abuztuaren 15eko 17/2020 Dekretuan xedatu duen osasun alertak sortutako egoeraren aurrean, kontuan hartzen dira Osasun Sailburuak 2020ko abuztuaren 19ko Aginduan hartutako neurriak. Agindu horrek, COVID-19k eragindako osasun krisialdiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriak jasotzen ditu, eta ondorioak izango ditu argitaratzen den egunetik bertatik aurrera, hau da, 2020ko abuztuaren 19tik aurrera.

Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Alkatetza honi emaniko eskumenak ikusita, aplikagarriak diren gainerako legeei dagokienean,

Honakoa argitaratzen da,

ALKATETZAREN BANDOA

LEHENENGOA.- COVID-19ren hedapena geldiarazteko hartu diren neurri berrien artean, honako hauek gogorarazten dira, udalerrian eragin berezia sortzen dutelako. Egoera horrek, indarrean dauden arauen aldaketa dakar.

1.1.- Kautela- eta babes-betebeharrak.

Herritarrei gomendatzen zaie bizikidetzaren egonkorreko taldetik kanpoko gizarte-topaketak murriztea, baita gizarte-topaketa horiek gehienez 10 lagunena izatea ere.

1.3.8.- Derrigor maskara behar bezala erabili behar da, sudur-trenkadaren zati batetik kokotseraino (barne) estaliz.

2.4.- Ezin izango da erre bide publikoan edo aire zabaleko espazioetan, ezin bazaio pertsonen arteko 2 metroko gutxieneko distantziari eutsi. Tabakoa arnasteko beste edozein dispositiboren erabilerari ere aplikatuko zaio muga hori, hala nola zigarreta elektronikoei, lurrungailuei, ur-pipei, pipei edo antzekoei.

**D^a. M^a ISABEL LANDA GAUBEKA,
ALCALDESA-PRESIDENTA DEL
AYUNTAMIENTO DE BERANGO
(BIZKAIA),**

HACE SABER:

Ante la situación generada por la alerta sanitaria derivada de la propagación de la COVID-19 dispuesta por Decreto 17/2020, de 15 de agosto, del Lehendakari, y, considerando las medidas adoptadas en la Orden de 19 de agosto de 2020 de la Consejera de Salud, sobre medidas de prevención necesarias para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por la COVID-19, y cuyos efectos surtirán desde el mismo día se su publicación, el citado 19 de agosto de 2020.

Vistas las facultades que atribuyen a esta Alcaldía la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, en relación con la restante legislación de pertinente aplicación,

Se emite el siguiente,

BANDO DE ALCALDIA

PRIMERO.- Entre las nuevas medidas adoptadas para frenar la expansión de la COVID-19 y que suponen modificar la normativa en vigor se encuentran las siguientes que por su especial incidencia en el municipio se recuerdan:

1.1.- Obligaciones de cautela y protección.

Se recomienda a la ciudadanía la limitación de los encuentros sociales fuera del grupo de convivencia estable, así como que los encuentros sociales se limiten a un máximo de 10 personas.

1.3.8.- Es obligatorio el uso adecuado de la mascarilla; es decir, esta deberá cubrir desde parte del tabique nasal hasta el mentón, incluido.

2.4.- No se podrá fumar en la vía pública o en espacios al aire libre cuando no se pueda respetar una distancia mínima interpersonal de, al menos, 2 metros. Esta limitación será aplicable también para el uso de cualquier otro dispositivo de inhalación de tabaco, tales como cigarrillos electrónicos, «vapers», pipas de agua, cachimbas o asimilados.



**BERANGOKO UDALA
BIZKAIA**

3.1.– Edukiera kontrolatzeko neurriak.

3.1.1.– Establezimenduek, instalazioek eta lokalek gehieneko edukiera adierazi beharko dute jendaurrean, eta edukiera horretan langileak ere jasoko dira. Haien barruan edukiera eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia errespetatzen direla ziurtatu beharko dute, eta edukiera zenbatzeko eta kontrolatzeko prozedurak ezarri beharko dituzte, inoiz ere gainditu ez dadin.

3.1.2.– Pertsonen zirkulazioa antolatzeke eta espazioak banatzeko orduan, pertsonen arteko segurtasun-distantziari eusteko ahalegina egin beharko da. Ahal den neurrian, ibilbideak ezarriko dira bezeroen eta erabiltzaileen zirkulazioa zuzentzeko eta gune jakin batzuetan, bai barrualdeetan bai kanpoko aldeetan, pertsonen pilaketak eta haien arteko kontaktua saihesteko. Bi ate edo gehiago daudenean, sarrerarako eta irteerarako erabilera desberdina ezartzen saiatuko da, pilaketak sortzeko arriskua murrizteko.

3.5.1.– Txikizkako merkataritza-establezimendu eta -lokalak eta jendeari irekitako zerbitzu profesionaletako jardueretakoak, bai eta merkataritza-guneak edo -parkeak ere, edukieramugarik gabe ireki ahal izango dira, eta espazio komunetan eta jolas-guneetan, halakorik badago, edukieraren % 60 errespetatuko da. Merkataritza-zentro edo -parkeetako eremu komunetan, gauerdiko 00:00etatik aurrera, ezin izango da ibili ostalaritzako edo aisialdiko lokaletan sartzeko edo haietatik irteteko baino, eta ezin izango da eremu horietan egon edo kontsumitu. Neurriak ezarri beharko dira lokaletan edo establezimenduetan pertsonen arteko segurtasun-distantzia mantentzeko, eta, halakorik ezean, babes fisikorako neurri alternatiboak baliatuko dira. Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia 1,5 metrokoa den.

3.5.4.– Lehentasunezko zerbitzua emango zaie 65 urtetik gorakoei.

3.8.– Ostalaritzako lokalak eta zerbitzuak, jatetxeak, txokoak eta elkarte gastronomikoak.

3.8.1.– Edukieraren muga kentzen da, baldin eta bermatzen bada 1,5 metroko distantzia fisikoa dagoela mahaien artean edo, hala badagokio, mahai-multzoen artean. 1,5 metroko distantzia hori mahaietatik edo mahai-multzoetatik gertuen dauden pertsonen artean neurtuko da. Gehieneko okupazioa 10 pertsonakoa izango da mahai edo

3.1.– Medidas en materia de control de aforo.

3.1.1.– Los establecimientos, instalaciones y locales deberán exponer al público el aforo máximo, que deberá incluir a los propios trabajadores, y asegurar que dicho aforo y la distancia de seguridad interpersonal se respeta en su interior, debiendo establecer procedimientos que permitan el recuento y control del aforo, de forma que este no sea superado en ningún momento.

3.1.2.– La organización de la circulación de personas y la distribución de espacios deberá procurar la posibilidad de mantener la distancia de seguridad interpersonal. En la medida de lo posible se establecerán itinerarios para dirigir la circulación de clientes y personas usuarias y evitar aglomeraciones en determinadas zonas, tanto en el interior como en el exterior, y prevenir el contacto entre ellos. Cuando se disponga de dos o más puertas, se procurará establecer un uso diferenciado para la entrada y la salida, con objeto de reducir el riesgo de formación de aglomeraciones.

3.5.1.– Los establecimientos y locales comerciales minoristas y de actividades de servicios profesionales abiertos al público, así como los centros o parques comerciales, podrán abrir sin límite de aforo respetándose un 60% de aforo en los espacios comunes y espacios recreativos, si los hubiere. En los centros o parques comerciales a partir de las 00:00 horas se transitará por las áreas comunes exclusivamente para acceder o salir de los locales de hostelería o de ocio que hubiera, no pudiendo permanecer ni consumir en dichas áreas. Deberán establecerse las medidas necesarias para procurar mantener la distancia de seguridad interpersonal en los locales o establecimientos o, en su defecto, la utilización de medidas alternativas de protección física. El uso de mascarilla será obligatorio, aunque se mantenga la distancia de seguridad interpersonal de 1,5 metros.

3.5.4.– Se procurará la atención con servicio preferente para mayores de 65 años.

3.8.– Establecimientos y servicios de hostelería, restauración, txokos y sociedades gastronómicas.

3.8.1.– Se elimina el límite de aforo, siempre que se asegure la distancia física de 1,5 metros entre las mesas o, en su caso, agrupaciones de mesas. Esta distancia de 1,5 metros deberá estar medida entre las personas más próximas de las diferentes mesas o agrupaciones de mesas. La ocupación máxima será de 10 personas por



**BERANGOKO UDALA
BIZKAIA**

mahai-multzo bakoitzeko. Horretarako erabiltzen den mahaiak edo mahai-multzoak pertsona kopuruaren arabera izan behar dute, eta ahalbidetu behar dute pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-distantzia errespetatzea. Lokalaren barruan, gehienez ere 60 pertsona egon daitezke aldi berean. Gehieneko kopuru hori establezimendu horretako jangela edo espazio independente bakoitzerako da. Puntu honetan adierazitako distantziaren muga ez zaie aplikatuko bizikidetzaren unitate bereko kideei.

3.8.2.- Baimenduta dago barrura sartzea eta barran zerbitzua ematea, betiere bezeroen edo bezero-taldeen artean 1,5 metroko distantzia fisikoa mantenduta, eta denbora guztian eserita egon beharko dute. Koktelak eta buffetak egin daitezke, gehienez ere 10 laguneko taldeetan. Betiere ziurtatu beharko da bezeroen arteko segurtasun-tarte egokia mantentzen dela, bai establezimenduaren barruko barran eta mahaietan, bai establezimenduaren kanpoaldean, eta bezero edo bertaratu guztiek eserita egon beharko dute. Puntu honetan adierazitako distantziaren muga ez zaie aplikatuko bizikidetzaren unitate bereko kideei.

3.8.4.- Ostalaritzako, jatetxeetako, txokoetako eta elkarte gastronomikoetako establezimenduek eta zerbitzuek goizaldeko 01:00a baino lehen itxi beharko dute, eta 00:00etatik aurrera ezin izango da bezerorik sartu, ez eta kontsumiziorik jarri ere. Lokalak itxita egon beharko du jendearentzat, eta ezin izango da berriro ireki 06:00ak baino lehen. Neurri horiek asteko egun guztietan aplikatuko dira, jaiegunak barne.

3.16.- Jarduera fisikoa eta kirol-instalazioak.

3.16.1.- Federatu gabeko kirol-jarduera fisikoa bakarka edo taldeka egin ahal izango da aire zabalean, kontaktu fisikorik gabe, eta gehienez ere 10 pertsonako taldeetan, aldi berean. Aire libreko praktika hori maskararik gabe egin ahalko da.

Era berean, kontaktu fisikoa egon daitekeen talde-kirolaren kasuan, maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da, salbu eta partida edo lehiaketa gertatzen den unean edo jarduera fisiko bizia egiten den unean, bat etorri COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko

mesa o agrupación de mesas. La mesa o agrupación de mesas que se utilicen para este fin, deberán ser acordes al número de personas, permitiendo que se respete la distancia mínima de seguridad interpersonal. El número de personas que pueden permanecer de forma simultánea en el interior de un local será de 60, entendido este número máximo por cada uno de los comedores o espacios independientes existentes en dicho establecimiento. El límite de distancia recogido en este punto no será de aplicación a los miembros de la misma unidad de convivencia.

3.8.2.- Se permite el acceso al interior y el servicio en barra, con distancia física de 1,5 metros entre clientes o grupos de clientes, debiendo permanecer en todo momento sentados. Se permite la celebración de cocktails y buffets en grupos de un máximo de 10 personas. En todo caso, deberá asegurarse que se mantiene la debida distancia de seguridad interpersonal entre clientes o grupos de clientes, tanto en mesas como en barra del interior del establecimiento, así como en el exterior de dichos establecimientos y que todos los clientes o asistentes deben permanecer sentados. El límite de distancia recogido en este punto no será de aplicación a los miembros de la misma unidad de convivencia.

3.8.4.- Los establecimientos y servicios de hostelería, restauración, txokos y sociedades gastronómicas, incluidas las terrazas, deberán cerrar no más tarde de las 01:00 horas, sin que pueda permitirse el acceso de clientes ni expedir consumición alguna desde las 00:00 horas. El local deberá permanecer cerrado al público y no podrá ser reabierto antes de las 06:00 horas. Estas medidas son de aplicación todos los días de la semana, incluidos los festivos.

3.16.- Actividad física e instalaciones deportivas.

3.16.1.- La práctica de la actividad física y deportiva no federada, al aire libre, podrá realizarse de forma individual o colectiva, sin contacto físico, y en grupos de hasta un máximo de 10 personas de forma simultánea. Esta práctica al aire libre, podrá realizarse sin mascarilla.

Igualmente, en caso de deporte de equipo, con posibilidad de contacto físico, el uso de mascarilla será obligatorio salvo en el momento del partido o competición o en los momentos de actividad física intensa, en base a los términos establecidos en el artículo 6.2 del Real Decreto-ley 21/2020, de 9 de junio, de medidas urgentes



BERANGOKO UDALA
BIZKAIA

premiazko neurrien ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluekin.

3.29.– Gazteen lonjak eta antzekoak.

Debekatuta dago gazte-lonjetan eta antzeko ezaugarriak dituzten lokaletan edozein jarduera egitea.

3.30.– Osasungaitzasun-egoerak.

Ostalaritzako establezimenduak edo antzekoak ez diren espazio publikoetan edo kalean taldean edatea osasungaitzasun-egoeratzat hartuko da, Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 6.f) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

Kontrolak indartuko dira baimenduta ez dagoen alkohol-kontsumoa eta bide publikoan baimenduta ez dauden beste jarduera batzuk galarazteko. Alde horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunek eta udalek dagozkien zehapenak ezarriko dituzte.

Hori guztia jendaurrean zabaltzen da, Udalerriko auzotar guztiek jakin dezaten.

Berangon, 2020ko abuztuaren 20an.

de prevención, contención y coordinación para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19.

3.29.– Lonjas juveniles y similares.

Se prohíbe toda actividad en lonjas juveniles y locales de características similares.

3.30.– Situaciones de insalubridad.

El consumo colectivo o en grupo, de bebidas en la calle o en espacios públicos, ajeno a los establecimientos de hostelería o similares, será considerado como situación de insalubridad a los efectos de lo previsto en el artículo 6.f) de la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas.

Se reforzarán los controles para impedir el consumo de alcohol que no estuviera autorizado y otras actividades no permitidas en la vía pública. En este sentido, los órganos competentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco y ayuntamientos aplicarán las sanciones correspondientes.

Lo que se hace público para general conocimiento de las vecinas y los vecinos de este Municipio.

Berango, a 20 de agosto de 2020.

LA ALCALDESA



Mª Isabel Landa Gaubeka